

R. M. AZKUE/LAURO IKASTOLA 40. URTEMUGA

*Pedro Aranburu,
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko lehendakaria*

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Ignazio Etxeberria Lauro ikastolako presidentea,
Jaime Martinez Lauro ikastolako zuzendaria,
Euskaltzaindiko zuzendaritzako kideak,
hona hurreratutako euskaltzain osoak eta urgazleak,
ikastolen Federazioetako presidentek eta erkideak,
lagunok!

Sasoi bateko Resurrección Maria de Azkue Ikastola, gero *Lauro* Ikastola izena hartuko zuena, legeztatu zela berrogeigarren urteurrena ospatzen delarik, Euskaltzaindiak ageriko bilkura honetan esku hartzeko egindako gonbita eskertu nahi nuke lehenbizi. Halaber, gure herrian hainbatetan desiratutako bakea eta normalizazio politikoa gertatzeko urrats itxaropentsuak ugaritzen ari diren une hau, iraganari begiratu azkarra egiteko ez eze, etorkizunari beha zenbait gogoeta lau haizeetara barreiatzeko ere baliatu nahiko nuke.

Hainbatetan uste edo esaten denaren kontra, eskola elebidunaren aldeko aldarria ez da oraingoa, ez eta aurreko mendeko 80ko hamarkadan gorpuztu zen eskakizuna ere. Alta, XIX. mendean indarra hartu zuen eskaria izan zen, bada, Frantzia eta Espainian eskola berriaren oinarriak zehaztu ziren garaitik dator, gutxienez. Izan ere, Frantziak eta Espainiak barnebiltzen zituzten herri-sentimenduak urtu eta estatu zein nazio sentimendu bateratuak sortzeko bidean, besteren artean, hezkuntzaz baliatu izan ziren. Sasoi hartan gorpuztutako hezkuntza sistema horietan ez zegoen hizkuntza-aniztasunerako tarterik; beraz, bestelako hizkuntzen artean, euskararentzat ere, apenas. Testuinguru horretan, euskarari egiten zitzaion hutsunea gogoan, Campioneek nola baita Azkuek berak garai bateko eskola kritikatu zuten. Hain zuzen, aurten ehun eta hamar urte betetzen dira Institutio honen buru izan zen Azkuek, gabezia horri erantzun egokia eman nahian, bere eskola sortu zuela. Gure artean nabarmena denez, Azkueren itzala, ostera, ez da horretan gelditu, are luzeagoa da, besteak beste, kaleei, plazei, Lekeitioko ikastolari, euskaltegi bakarren bati eta abar bati utzi baitie izena.

Geroztik, euskararen irakaskuntza lehenik eta euskarazko irakaskuntza ere aldarrikatu ez ezik, gauzatzeko askotariko ahaleginak egin dira, dela Diputazioen eskutik dela gizartearen esku-hartzearekin zein bestelakoekin. Ahalegin horien artean errotuena eta hezkuntzan eraginik zabalena izan duenak Ikastolen sorrerarekin eta garapenarekin zerikusia du ezbairik gabe.

Espanian, II. Errepublikaren kontrako altxamendu militarrek ezarri zuen diktadurak hankaz gora jarriko zituen, aldi baterako, ikastolen mugimendua ez ezik, administrazioaren baitako bestelako eskoletan euskararen eta euskarazko irakaskuntza bideratzeko ordura arte egindako urratsak ere. Baina, nahia, beharra, gure hizkuntzari eta herri-izaerari eusteko gogoak hor zirauten. Beraz, berrogeita hamarreko hamarkadan, beraien ongizatea arriskuan jarritz, bidegile suertatu diren guraso askori esker, han-hemenka ikastolak sortzen hasi ziren berriro, diktaduraren jazarpenetik ihesi, Euskaltzaindiaren, elizaren zein bestelako erakundeen atzerpea bilatu zutelarik, bidenabar.

Argi esan dezadan, Euskaltzaindiak ez ditu egin soil-soilik gure hizkuntza garai berrietara egokitzeko urratsak. Horrezaz gainera, euskararen zabal-kundea nola baita haren garapena ahalbidetzeko, gutxieneko lege aitormena bilatuz egin dituen askotariko urratsetan ere erabakigarriak suertatu dira haren ekarpenak: dela aurreko mendean, hirurogeiko hamarkadatik aurrera, pertsona helduen alfabetatze eta euskalduntze mugimenduaren sorreran eta garapenean izan zuen erantzukizunaren bitartez, dela ikastolen zabalkundea laguntzeko egin dituen ekarpenen bidez, dela *Jagon* Sailaren bitartez burutzen dituen askotariko jardueren bitartez eta abar. Nafarroan nola baita Euskal Herri kontinentalean jarri zaizkigun askotariko behaztopak arintzen ere hur eduki dugu Euskaltzaindia. Honegatik guztiagatik, ikastolen mugimenduko goreneko ordezkaria naizen aldetik, etxean eta aldi berean etxeko sentitzen naizela aitortu behar dizut, Andres Urrutia adiskidea.

Hirurogeiko hamarkadan, lehenagotik ereindakoak fruituak ematen hasi ziren, horra hor Euskaltzaindiaren eskutik euskararen batasunean egindako urrats erabakigarriak. Inguruabar horretan, gure hizkuntza indarbertitzeko ahaleginean mugarri gertatu den une horretan, beste batzuekin batera, ikastolak ondoan izan zituen Euskaltzaindiak. Izan ere, garai hartan, batzuek eredu bateratuaren aldeko apustua euskalkien kontrako joera edota euskarak irauteko mehatxua ikusten zuten lekuan, ikastola gehienok euskararen biziberritzea ahalbidetzeko aukera historikoa antzeman genuen. Horra hor, bakoitzak deza-keenetik eskuz esku lankidetzan aritzeko adibide paregabea.

Euskararen normalizazioa lortzeko bidean, lanean jardunez, arian-arian euskara garai berrietarako egokitzea ezinbestekoa da, eta horretan, erakunde aholku-emaile ofiziala Euskaltzaindia da, duda izpirik gabe. Baina, aldi berean, nire uste apalean, Euskaltzaindiak gure premia ere badu, besteren artean, gure bitartez hedatzen baitira batasunaren bidean egindako urratsak, hiztunek noiznahi eta nonahi euskaraz jardun dezaten modua eginez, bidenabar. Orobat

hiztunek erabilera eremuak behar dituzte, hori lortzeko xedez, Euskaltzaindiak nola ikastolok beste batzuekin jardutea ere garrantzi handikoa da.

Badira iraupen gutxiko elkarte zein erakundeak beren jardunaren arrastorik utzi izan ez dutenak. Badira, oster, unean uneko zailtasunak gorabehera, hamarkadetan, mendez mende lanean segitzen dutenak, horiek dira ezinbestekoak, behar-beharrezkoak gure hizkuntzak irautea eta garatzea nahi badugu egunean zein etorkizunean. Gaur eta hemen, hizkuntza eta hezkuntza gaietan Euskal Herrian hedatuta gauden erakunde nagusietako ordezkariak elkartu garelarik, gure arteko harremanak estutuz eta bizkortuz, euskara gure herrietako plazetara eta mundura eramateko dugun intentzioa, eginbeharra aldarrikatu nahi dut Ikastolen izenean.

Eskerrik asko guztioi!